

## Ondare ondasunak aldi baterako lagatzeko eskaintza, kontraprestazio ekonomikorik gabe (Komodatua)

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Erakunde edo pertsona partikular batek bere ondare bilduma aldi baterako lagatzeko eskatzen du, Gordailuan komodatuan gordetzeko

### Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
- Kultura Ondareko Zuzendaritza Nagusia
- Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzua

### Harremana

#### **Pertsona juridikoak eta profesionalak:**

- Telematika: online izapidetzea

#### **Pertsona fisikoak:**

- Aurrez aurrekoa:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Arreta Zerbitzua.

Gipuzkoa Plaza, z/g, 20004 Donostia, Gipuzkoa.

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 08:30-18:30. Ostiraletan, 8:30-14:30. Abuztuan, astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30.

Telefonoa: 943 11 21 11

- Telematika: online izapidetzea

#### **Informazio gehiago:**

Gordailua eta Museoen Zerbitzua

Kultura Zuzendaritza. Zerbitzua: Gordailua eta Museoak

Posta elektronikoa: [gordailua@gordailua.eus](mailto:gordailua@gordailua.eus)

Telefonoa: 943 41 51 78

### Nori zuzenduta

Gipuzkoako lurralde historikorako interesgarria den objektu edo ondare bildumaren bat duen edozein pertsona fisiko edo juridiko.

### Baldintzak

Komodatuan utzi nahi den objektu edo bildumaren jabetza ziurtatzen duen dokumentua edo formularioan jasota dagoen erantzukizuneko aitortpena sinatua.

[Gordailuan komodatoan objektu edo ondare bildumak uzteko eskaera.](#)

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Komodatu eskaeraren formularioa \(PDF\)](#) eta dokumentazio hau:

- Bildumaren piezako pieza osaera eta Gipuzkoarako duen ondare garrantzia zehatz-mehatz adierazten duen dokumentazioa.
- Bildumaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria edo, bestela, bildumaren titulartasuna egiaztatzen duen notarioaren erantzukizunpeko adierazpena.

### Eskaera moduak

» Internet    » Presentziala

### Internet bidezko eskaera

- Bide telematikoz: [formulario elektronikoa online izapidetzea](#)

### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

## Zuzeneko arretarako bulegoak

**Pertsona fisikoak bakarrik:**

### Arreta Zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa plaza z.g., 20004 Donostia.

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera, 08:30-18:30. Ostiraletan, 8:30-14:30. Abuztuan, astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30.

Telefonoa: 943 11 21 11

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

Onartzeko aurreikusitako epea: 3 hilabete

Legezko epea: 3 hilabete

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

### Honen bidez jakinarazten da

» Komunikazio elektronikoa    » Telefono bidezko komunikazioa    » Jakinarazpen elektronikoa

## ARAUDIA

---

[2/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituena.](#)

[Uztailaren 9ko 8/1996 Foru Araua Gipuzkoako Lurraldearen Ondarearena.](#)

[Kode Zibilaren 1740. artikulua eta hurrengoak.](#)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Oharrak

#### TRAMITAZIO FASEAK

- Dokumentazioa erregistratzea eta berrikustea, eta eskatutako baldintzak betetzen ez badira, zuzentzeko eskatuko da.
- Gordailu Zerbitzura bidaltzea, aztertu eta balora dezaten.
- Ebazpen-proposamena egitea.
- Kultura Zuzendaritzaren ebazpena.
- Jakinarazpena.

**Ebazpena jakinarazi ondoren, komodatua formalizatuko da eta Gordailuan jaso eta egokitzeko lanak egingo dira.**